

6.a	1. JARDUERA FITXA	OBJEKTUA ETA OBJEKTU TEKNIKOA Erabilera funtzioa – Estimatu funtzioa	
------------	----------------------------------	---	---

EZAGUTZAK :	MAILA :	GAITASUNAK :
Objektu teknikoak	1 (« badakit »)	- Objektua eta objektu teknikoak desberdindu justifikatuz.
Beharra	1 (« badakit »)	- Beharra eta objektu teknikoak uztartu.
Funtzioa	1 (« badakit »)	- Objektu tekniko baten erabilera funtzioa zehaztu. - Erabilera funtzioa eta estimatu funtzioa desberdindu. - Objektu tekniko batentzat, estimatu funtzioei doazkien irizpideak zehaztu.
Balorea	1 (« badakit »)	- Objektu tekniko baten balorearen osagaiak identifikatu : prezio, fidagarritasun, erabilgarritasun, epe.

Oinarri bateratua

3	Hainbat eremu zientifikotan ezagutzak eta gaitasunak erabiltzen jakin	Objektu teknikoak : ikertzea, diseinatzea.
----------	---	--

Aitzin-gogoetak :

Bi irudi hauek elkarrekin beha ditzagun :
 Bietan, **ur gaineko garraiobideak** ikus daitezke :
 lehenbizikoan **ubidea** da erabiltzen den bidea eta
 bigarrenean **ibaia**. Baina, zein dira ontziek erabiltzen
 dituzten bi bide hauen arteko desberdintasunak ?








.....

1- Objektua eta objektu teknikoa

Nola beraz desberdindu objektua objektu teknikotik ?

.....

2- Azpiko taula hau osatu :

	Objektua	Objektu teknikoa	Zein da betetzen den beharra ? Edo, zertarako egina da objektua ?
kaskoa			
sakelako telefonoa			
zuhaitza			
idazluma			
legarra			

4 Erabilera funtzioa zehaztu

Ikusi dugun bezala taula osatuz, objektuak edo objektu teknikoak funtzio bat beteko du. Gizakiak egiten dituen objektu teknikoekin funtzio asko betetzea lortuko dugu.

Objektu teknikoak beteko duen funtzio honi **erabilera funtzioa** deituko diogu.

Adibidez : *hainbat jende garraiatu - marrak marraztu - mezu elektronikoak bidali - norbait garraiatu - paperaren gainean egindako marka ezabatu - petrolioa garraiatu - abisa askatu edo tinkatu - luzerak neurtu -*

Taula honetan, objektu tekniko bakoitzaren **erabilera funtzioa** zehaztu gaineko zerrenda baliatuz :

Objektu teknikoa	Erabilera funtzioa(k)	Objektu teknikoa	Erabilera funtzioa(k)
bizikleta		petrolio-ontzia	
autoa		mezutegi elektronikoa	
bihurkina		trotineta	
erregela		arkatz gomaduna	

5 Erabilera funtzioa eta objektu teknikoa uztartu

Objektu tekniko bati doakion erabilera funtzioa **aditz** batez zehaztuko da edo galdera honi erantzunez : «**zertarako egina da objektua ?**».

Erabilera funtzio bakoitzari doa(z)kion objektu tekniko(a)k atzeman :

Objektu tekniko(a)	Erabilera funtzioa	Objektu tekniko(a)	Erabilera funtzioa
	Jendeak ehunka garraiatu burdin bidez		Bi jenderen artean urrundik komunikatu ahoz
	Jendeak ehunka garraiatu airez		Hortzak garbitu
	Jakia hotzean kontserbatu		Jakia berotu

6 Estimatu funtzioa :

Laneko dokumentuan (1. iturri-fitxa) ikus daitezkeen 4 trotineta elektrikoak beha ditzagun :

6-a Objektu tekniko hauen erabilera funtzioa berdina ote da ? bai ez

6-b Zein da erabilera funtzio hori ?

.....

6-c Zein da objektu hauen funtzionamendu printzipio orokorra ?

.....

.....

6-d Objektu bat erostean, itxurak (edo estetikak) eta modak erosleari eragiten diote : objektuak bere **xarma** dauka eta erosleek funtzio tekniko bera beteko duten objektuak desberdinki hautatuko dituzte. **Estimatu-funtzioak** lotura azkarra izanen du objektuaren "**design**" delakoarekin : itxura, koloreak, materialak, performantzia teknikoak, moda, bizi modua...

- 4 trotineten ezaugarri hauek taula honetan adieraz itzazu :

Trotineta	A modeloa	B modeloa	C modeloa	D modeloa
Prezioa				
Gehienezko abiadura				
Plegagarria (bai ala ez)				
Kolorea				
Masa				
Argiztapena (bai ala ez)				
Arrasta edo balazta (bai ala ez)				
Biltzeko kutxa (bai ala ez)				
Motelgailuak (bai ala ez)				

6-e Hautapena : taula hau osa ezazu.

Erabiltzailea	Hautatutako modeloak	Azalpenak edo zergatik hautu hori ?
Erabiltzaile kirolaria		
Erabiltzaile zuhurra, tresna segurua nahi duena		
Eros ahalmen ttipiko erabiltzailea		
Puskak berarekin eraman behar dituen erabiltzailea		
Bizkarreko arazoak dituen erabiltzailea		
Trotineta bere autoan altxatu nahi duen erabiltzailea		